Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, HAUR-JOLASEN ETA KIROL ANITZEKO PISTEN KONTSERBAZIO- ETA MANTENTZE-ZERBITZUETARAKO LEHIAKETA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE CONSERVACION Y MANTENIMIENTO DE LOS JUEGOS INFANTILES Y PISTAS MULTIDEPORTE URBANAS

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

2. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

2.1. HELBURUAK

2.2. LANAK

3. MANTENTZE-LANEN DESKRIBAPENA.

3.1. MANTENTZE ARRUNTA

3.1.1. BEGI-IKUSKAPENA

3.1.2. IKUSKAPEN FUNTZIONALA

3.1.3. URTEKO IKUSKAPENA

3.2. EZ OHIKO MANTENTZE LANAK

4. MATERIALEN ESTALDURA

5. KONTRATUARI ATXIKIKO ZAIZKION GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK

6. URGENTZIAKO KONPONKETAK

7. KONTRATUAREN KOORDINATZAILEA

8. SEGURTASUNA LANEAN

9. ERREFERENTZIAKO ARAUDIAK

10. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

10.1 HIZKUNTZA-PAISAIA

10.2. ERABILERA EIBARKO UDALAREKIN

10.3. HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN JARRAIPENA

INDICE

1. OBJETO DEL CONTRATO

2. DESCRIPCION DEL SERVICIO

2.1. OBJETIVOS

2.2. TRABAJOS

3. DESCRIPCION DE LOS MANTENIMIENTOS

3.1. MANTENIMIENTO ORDINARIO

3.1.1 INSPECCION OCULAR

3.1.2 INSPECCION FUNCIONAL

3.1.3 INSPECCION ANUAL

3.2. MANTENIMIENTO EXTRAORDINARIO

4. COBERTURA DE MATERIALES

5. MEDIOS HUMANOS Y MATERIALES A ADSCRIBIR AL CONTRATO

6. REPARACIONES DE URGENCIA

7. COORDINADOR DEL CONTRATO

8. SEGURIDAD EN LOS TRABAJOS

9. NORMATIVAS DE REFERENCIA

10. CRITERIOS LINGÜISTICOS

10.1. PAISAJE LINGÜISTICO

10.2. USO CON EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR

10.3. SEGUIMIENTO DE LOS CRITERIOS LINGÜISTICOS

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b838bdfd20c2d1a58f18c66013471744c6145f86** Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500006089** **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
XABIER URTEAGA URBINA	**03/12/2025 12:35:20**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

1.KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza-orri honek xedetzat du herriko haur-jolasen 52 guneen eta kirol anitzeko pisten kontserbazio- eta mantentze-zerbitzua emateko baldintza teknikoak arautzea. Bere baitan jasotzen ditu jolas-ekipoak, gainazal motelgarriak, hesi perimetralak eta seinalizazio-elementuak, bai eta garbiketa egitea, eta pintadak eta itsatsitako elementuak erretiratzea ere.

1.OBJETO DEL CONTRATO

Es objeto del presente Pliego la regulación de las condiciones técnicas por las que deberá regirse la prestación del servicio de conservación y mantenimiento de las 52 áreas de juegos infantiles del municipio y pistas multideporte. Incluye equipos de juego, superficies amortiguadoras, vallados perimetrales y elementos de señalización, así como limpieza, eliminación de pintadas y adhesivos.

2. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

2.1. HELBURUAK

Zerbitzuaren helburua da jarritako elementuei sistema bat eskaintzea, haien segurtasuna denboran bermatzeko eta, aldi berean, multzo osoaren estetika zaintzeko.

2.2. LANAK

Parkeen kontserbazioa aldizkako ikuskapen- eta berrikuspen-plan bati jarraituz egingo da, bermatuko duena prebentziozko mantentzea egitea eta elementu guztien zein guneetako gainazaleraren egoera ezin hobea izatea.

2. DESCRIPCION DEL SERVICIO

2.1. OBJETIVOS

El objetivo de dicho servicio es proporcionar a los elementos instalados un sistema que garantice la seguridad de éstos a lo largo del tiempo y al mismo tiempo la estética general del conjunto.

2.2. TRABAJOS

La conservación de los parques se realizará siguiendo un plan de inspecciones y de revisiones periódicas que garantice un mantenimiento preventivo y un perfecto estado de todos los elementos, así como de la superficie del área.

3.MANTENTZE-LANEN DESKRIBAPENA.

3.1. MANTENTZE ARRUNTA

3.1.1. BEGI-IKUSKAPENA

Gune bakoitza astero bisitatuko da, eta osagai guztien ikusizko azterketa bat egingo da.

Ikuskapen hau beharrezkoa da eta aukera ematen du arrisku nabarmenenak (eguraldi-baldintzen, erabileraren, eta abarren ondorioz sortuak) identifikatzeko. Ikuskapen mota hau da ohikoena, eta ezinbestekoa da jolasetan gerta daitezkeen arazoak antzeman ahal izateko, jolasak edo haien osagai batzuk hondatu eta funtzionatzeari utzi baino lehen.

Ikuskapena astero egingo da jolasen guneetan, egiaztatzeko ea elementurik falta den, ekintza bandalikoren bat gertatu den, materialik apurtu den eta jolasen ohiko funtzionamenduan eragin dezaketen beste alderdi batzuk gertatu diren.

Jarritako jolas guztiak aztertuko dira, eta ikusiko da ea seinaleek sinbologia zuzena eta eguneratua duten.

3. DESCRIPCION DE LOS MANTENIMIENTOS

3.1. MANTENIMIENTO ORDINARIO

3.1.1 INSPECCION OCULAR

Consiste en visitar cada área semanalmente, sometiéndola a un examen visual del estado de todos sus componentes.

Esta inspección es necesaria y permite identificar riesgos evidentes derivados de las condiciones meteorológicas, uso, etc. Este tipo de inspección es la más habitual y tiene una importancia fundamental para poder detectar las posibles anomalías de los juegos, antes de que estos o parte de ellos, se deterioren y dejen de funcionar.

Se hará una inspección semanal de las áreas de juego para comprobar si faltan elementos, si se ha producido algún acto vandálico, rotura de material y otros posibles aspectos que puedan influir en el correcto funcionamiento de los juegos.

Se revisarán la totalidad de los juegos instalados, inspeccionando las señalizaciones con la simbología correcta y actualizada.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b838bdfd20c2d1a58f18c66013471744c6145f86**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500006089**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
XABIER URTEAGA URBINA	**03/12/2025 12:35:20**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Ikuskapen horietan torlojuak eta lotzeko elementuak aztertu eta ondo estutuko dira, zati mugikorrak lubrifikatu, eta finkagailuak eta ainguraketak egiaztatuko dira. Halaber, jolasetatik pegatinak kendu eta pintadak garbituko dira.

En estas inspecciones se aprovechará para repasar y reapretar toda la tornillería, elementos de unión, lubricación de las partes móviles y verificación de las fijaciones y anclajes. También serán retiradas de los juegos las pegatinas y limpiezas de las pintadas.

Langileak oinarrizko material gutxieneko bat eta tresna eta erremintak izango ditu, gerta daitezkeen balizko akats eta kalteak konpondu ahal izateko. Hori posible ez balitz, langileak behar bezala seinalizatuko du jolasa istripurik ez gertatzeko.

El operario irá dotado de un mínimo de material básico y herramientas y útiles, para poder reparar los posibles desperfectos ocasionados. Si esto no fuera posible, el operario señalizará debidamente el juego para evitar posibles accidentes.

Ikuskapen horiek Udalari jakinaraziko zaizkio ohiko ikuskapenaren lan-fitxa baten bidez, ikuskatutako jolas-gune bakoitzeko egingo dena; fitxa horretan hauexek jasoko dira:

Estas inspecciones serán notificadas al Ayuntamiento mediante una ficha de trabajo de inspección rutinaria para cada una de las áreas de juego revisadas, en la que se hará constar:

- Gunearen zenbakia, izena edo helbidea, eta ikuskapenaren data.
- Jolas-elementu bakoitzaren izena, kodea eta fabrikatzailearen izena.
- Jolas-elementu bakoitzaren kontserbazio-egoeraren deskribapena.
- Jolasaren egoeraren argazkia.
- Pintadak: ea dauden ala ez.
- Kalteak: jolas-elementuei egindako kalterik dagoen ala ez.
- Oharrak: ekipoetan detektatutako gabezien edo akatsen ondorioz antzeman diren alderdiei egingo zaie aipamena.
- Gunearen egoera orokorra deskribatuko da eta antzemandako gabeziak edo akatsak konpontzeko hartutako neurriak.
- Kaltetutako piezak identifikatuko dira, eta baldin hondatutako piezak ordeztu edo mantentze-kontratuaren barruan ez dauden lanak egin behar badira, aurrekontu zenbatetsi banakatu bat aurkeztu beharko da, ordeztu beharreko edota egin beharreko lanena.

- Nº de área, nombre o dirección, y la fecha de inspección.
- Nombre del fabricante, código y nombre de cada elemento de juego.
- Descripción del estado de conservación de cada elemento de juego.
- Fotografía de estado del juego
- Pintadas: si hay o no.
- Daños: identificación de posibles daños a los elementos de juego.
- Observaciones: Se hará referencia a aspectos que se hayan apreciado como consecuencia de las deficiencias apreciadas en los equipos.
- Se describirá el estado general de la zona y de las acciones que se han tomado para reparar las deficiencias adoptadas.
- Se identificarán las piezas dañadas y en el caso de que haya que sustituir piezas deterioradas o realizar trabajos que no estén incluidos en el contrato de mantenimiento, se deberá presentar un presupuesto estimativo desglosado de los elementos a sustituir y/o de los trabajos a realizar

Fitxa hori bide telematikoa erabiliz igorriko zaio kontratuaren Zuzendaritzari.

Esta ficha se entregará vía telemática a la Dirección del contrato.

3.1.2. IKUSKAPEN FUNTZIONALA

3.1.2 INSPECCION FUNCIONAL

Ikuskapen funtzionala, hilerokoa izango dena, ohikoa baino espezifikoagoa eta sakonagoa izango da eta aurreko kapituluan deskribatutako begi-ikuskapenarekin osatuko da.

En la inspección funcional, que será mensual, más específica y profunda que la rutinaria, se deberá realizar complementándola con la visual descrita en el capítulo anterior.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b838bdfd20c2d1a58f18c66013471744c6145f86**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500006089**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
XABIER URTEAGA URBINA	**03/12/2025 12:35:20**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztatu beharko da jolasen funtzionamendua eta egonkortasuna, haien segurtasun-maila eta, bereziki, antzeman beharko da ea zati mugikorrak hondatzearen edo higatzearen zantzurik dagoen

Se deberá comprobar el funcionamiento y la estabilidad de los juegos, su nivel de seguridad y en particular detectar posibles muestras de desgaste excesivo de partes móviles.

Ikuskapen horiek Udalari jakinaraziko zaizkio ikuskapen funtzionaleko lan-fitxa baten bidez; fitxa bana egingo da ikuskatutako jolas-gune bakoitzeko.

Estas inspecciones serán notificadas al Ayuntamiento mediante una ficha de trabajo de inspección funcional para cada una de las áreas de juego.

Fitxa hori ohiko ikuskapenarena baino osatuagoa da; izan ere, jolas bakoitzarena denez, eta maiztasun handiagoz egiten denez, informazio gehiago dauka, jolasen mantentze egokia ziurtatzeko xedez.

Esta ficha es un documento más completo que la ficha de inspección rutinaria, debido a que al realizarse sobre cada juego individualmente, y con una menor frecuencia, deberá constituir una fuente mayor de información con la finalidad de asegurar el adecuado mantenimiento de los juegos.

Jolasen ikuskapen funtzionalek honako eragiketa hauek biltzen dituzte:

- Lotzeko piezak eta torlojuak doitzea. Pieza akastunak aldatzea.
- Kojineteak lubrifikatzea
- Zoru moteltzailea aztertzea Zimentazioak eta ainguraketak aztertzea.
- Pieza mugikorren higadura aztertu eta lubrifikatzea.
- Pieza apurtuak detektatzea.
- Egurrezko elementuetako kalte posibleak antzematea (korrosioa edo usteltzea).
- Kaltetutako piezak identifikatuko dira, eta baldin hondatutako piezak ordeztu edo mantentze-kontratuaren barruan ez dauden lanak egin behar badira, aurrekontu zenbatetsi banakatu bat aurkeztu beharko da, ordeztu beharreko edota egin beharreko lanena.

Las inspecciones funcionales de los juegos incluyen las siguientes operaciones:

- Ajuste de las piezas de unión y tornillos. Cambio de las piezas que estén defectuosas.
- Lubricación de los cojinetes.
- Revisión de la falta del pavimento amortiguante. Revisar cimentaciones y anclajes.
- Comprobación, revisión y lubricación del desgaste de las piezas móviles.
- Detectar piezas rotas.
- Detectar posibles desgastes en los elementos de madera (corrosión o pudrimiento).
- Se identificarán las piezas dañadas y en el caso de que haya que sustituir piezas deterioradas o realizar trabajos que no estén incluidos en el contrato de mantenimiento, se deberá presentar un presupuesto estimativo desglosado de los elementos a sustituir y/o de los trabajos a realizar

Ikuskapen horretatik abiatuta, jarraipen-fitxak beteko dira eta dagokion txostena egingo da, zeina kontratuaren Zuzendaritzari igorriko zaion.

A partir de esta inspección, se rellenarán las fichas de seguimiento y elaborará el informe correspondiente que se entregará a la Dirección del contrato.

3.1.3. URTEKO IKUSKAPENA

3.1.3 INSPECCION ANUAL

Urteko ikuskapen sakon bat egin beharko da gainerako ikuskapenen xede ez den guztiarena, bereziki zimentuena eta segurtasun globalarena. Modu exhaustiboan aztertuko da jolas gunearen instalazio osoaren funtzionamendua, bai modu zehatzean (elementu edo artikulazio bakoitza), bai ainguraketak eta instalazioak bere osotasunean.

Deberá realizarse una revisión anual en profundidad de todo lo que no es objeto de las demás revisiones, especialmente cimientos y seguridad global. Se revisará de forma exhaustiva el funcionamiento de toda la instalación del área de juego, tanto de forma particular (cada elemento o articulación), como anclajes y de la instalación en su conjunto.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b838bdfd20c2d1a58f18c66013471744c6145f86**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500006089**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
XABIER URTEAGA URBINA	**03/12/2025 12:35:20**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztatuko da jolasen, egituren, azaleren, zubien eta zimenduen segurtasun globalaren maila, arreta berezia jarriz lurperatutako elementuei (egurrezko hankak usteltzea, metalezko hanken korrosioa).

Ikuskapen horiek Udalari jakinaraziko zaizkio urteko ikuskapen nagusiko lan-fitxa baten bidez; fitxa bana egingo da ikuskatutako jolas-gune bakoitzeko

Jolasen urteko ikuskapenek honako eragiketa hauek biltzen dituzte:

- Egitura: makurdura, tolesdurak, haustura eta laxatzea.
- Zimenduak: egonkortasunaren galera, irteten diren zimenduak.
- Deformazioak, pitzatuak, zartatuak eta hausturak. Egiaztatzea jolas mugikorren ibilbideak ez direla gelditzen bere eremutik kanpo, eta haien posizioa eta jatorrizko baldintzak berrezartzea, deformazioak eta desplazamenduak badaude.
- Elementu metalikoen korrosioa: korrosioa ikuskatzea, bereziki ainguraketena, lursailaren hezetasunarekin baitaude harreman zuzenean.
- Egurrezko elementuen usteltzea eta onddoen edo intsektuen erasoa: gainazalean ukitutako egurrezko elementuak pintatzea edota bernizatzea, eta onddoen edo intsektuen aurkako tratamendua ematea.
- Eguraldiak eta erabilerak eragindako gainazaleko higadura: konpontzea.
- Finkagailu eta lotura akastunak edo urriak: finkagailuak eta loturak indartzea edo desmuntatu eta berriztea, baldin daudenek ez badute bermerik ematen; ainguraketen eta loturen egoera ikuskatzea.

Halaber, elementu guztiak urtean behin garbituko dira presiopeko ararekin.

- Kaltetutako piezak identifikatuko dira, eta baldin hondatutako piezak ordeztu edo mantentze-kontratuaren barruan ez dauden lanak egin behar badira, aurrekontu zenbatetsi banakatu bat aurkeztu beharko da, ordeztu beharreko edota egin beharreko lanena.

Se comprobará el nivel de seguridad global de los juegos, estructuras, superficies, puentes, cimientos, poniendo especial atención a los elementos enterrados (pudrimiento de patas de madera, corrosión de patas de metal).

Estas inspecciones serán notificadas anualmente al Ayuntamiento mediante una ficha de trabajo de inspección principal anual para cada una de las áreas de juego.

Las inspecciones anuales de los juegos incluyen las siguientes operaciones:

- Estructura: flexión, dobleces, rotura y aflojamiento.
- Cimientos: pérdida de estabilidad, cimientos que sobresalen
- Deformaciones, fisuras, agrietamientos y roturas: comprobar que las trayectorias de los juegos móviles no quedan fuera de su itinerario, restablecer su posición y condición inicial en caso de deformaciones y desplazamientos.
- Corrosión de los elementos metálicos: inspeccionar la corrosión, en especial la de los anclajes, ya que están en contacto directo con la humedad del terreno
- Pudrimiento y ataque de hongos o insectos a los elementos de madera: repintar y/o barnizar los elementos de madera afectados superficialmente y aplicar un tratamiento para la protección contra hongos o insectos.
- Desgaste superficial por acción de los agentes atmosféricos y por el uso: reparar
- Fijaciones y uniones deficientes: reforzar o desmontar y renovar las fijaciones y uniones, si las existentes, no ofrecen garantías, inspeccionar el estado de los anclajes y de las uniones.

También se realizará una limpieza anual de todos los elementos con agua a presión.

- Se identificarán las piezas dañadas y en el caso de que haya que sustituir piezas deterioradas o realizar trabajos que no estén incluidos en el contrato de mantenimiento, se deberá presentar un presupuesto estimativo desglosado de los elementos a sustituir y/o de los trabajos a realizar.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b838bdfd20c2d1a58f18c66013471744c6145f86**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500006089**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
XABIER URTEAGA URBINA	**03/12/2025 12:35:20**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

3.2. EZ OHIKO MANTENTZE LANAK

Aparteko jarduketatzat joko da jokoetako elementu hauek aldatzea:

- Hondatutako parkeetako elementuak
- Zoladurak

Elementu horiek ordezteko Udalaren aurretiazko baimena beharko da.

Udalak ordainduko duen prezioa adjudikaziodunak bere proposamenean eskainitakoa izango da. Eskainitako prezioan jasoko dira sortutako hondakinen kudeaketa, eskulana eta beharrezkoak diren gainerako bitarteko laguntzaileak.

Elementu horiek jatorrizko edo fabrikako beste batzuez ordeztu beharko dira.

4. MATERIALEN ESTALDURA

Enpresak ordainduko ditu gastu hauek: material txikiak, hala nola, torlojuak, azkoinak, zirrindolak, espirak, takoak, kimikoak, erretxinak, pegatinak erretiratzeko produktuak eta pintura, tapoiak eta plastikozko estalkiak, errematxeak.

5.ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA

- Zerbitzuaren arduradun bat, 24 h-ko arreta-telefonoarekin eta posta elektrinokoarekin
- Ofizial bat, UNE-EN 1176 jolas-araudiari buruzko ezagutzak eta titulazioa izango dituena.
- Ibilgailu bat tresnekin, talde eletrogenoarekin eta ordezteko material batzuekin.
- Biltegia Eibartik 50 km-ko eremuan.
- Baldin eta konponketa batek pertsona baten gaitasuna gainditzen badu, bigarren ofizial bat joango da lehenari laguntzera.
- Mantentze-lana kudeatzeko sistema bat ezarriko da, lan-parteak erregistratzeko eta ekipamenduen egoera kontrolatzeko.

Udalak biltegi txiki bat jarriko du kontratistak behar dituen ordezko materialetarako, mantentze ibilgailuetan gorde ezin direnak.

3.2. MANTENIMIENTO EXTRAORDINARIO

Se consideran actuaciones extraordinarias la sustitución de los siguientes elementos de los juegos

- Elementos de los parques deteriorados
- Pavimentos

La sustitución de estos elementos se hará previa autorización del Ayuntamiento.

El precio abonar por el Ayuntamiento será el ofertado por el adjudicatario del contrato en su propuesta. En el precio ofertado estarán incluidos la gestión de los residuos generados, la mano de obra y los demás medios auxiliares necesarios

Estos elementos deberán sustituirse por otros originales o de fabricante.

4. COBERTURA DE MATERIALES

Será por cuenta de la empresa los siguientes gastos: Pequeños materiales, tales como tornillos, tuercas, arandelas, espiras, tacos químicos, resinas, productos para retirada de pegatinas y pintura, tapones y tapas de plástico, remaches y similares.

5. ORGANIZACIÓN DEL SERVICIO

- Un responsable del servicio con teléfono de atención 24 h y correo electrónico
- Un oficial con conocimientos y titulación sobre la normativa de juegos UNE-EN 1176.
- Un vehículo con herramientas, grupo electrógeno y pequeño material de recambio.
- Almacén en un radio de 50 km de Eibar
- En caso de que una reparación exceda de la capacidad de una persona, se desplazara un segundo oficial para ayudar al principal.
- Se dispondrá de un sistema de gestión del mantenimiento, donde se registren los partes de trabajo y se lleve un control del estado de los equipamientos

El Ayuntamiento facilitará un pequeño almacén para los materiales de repuesto que precise el contratista y que no pudieran almacenarse en los vehículos de mantenimiento

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b838bdfd20c2d1a58f18c66013471744c6145f86**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500006089**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
XABIER URTEAGA URBINA	**03/12/2025 12:35:20**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

6. URGENTZIAKO KONPONKETAK

24 orduko epean erantzungo zaio urgentziazko edozein abisuri. Urgentziazko konponketak, halaber, arriskutsuak eta ez arriskutsuak izan daitezke. Lehen kasuan, jolasa konponduko da, Udalaren aurretiazko baimena jaso ondoren.

Ezin bada konpondu, gunea zintaz inguratu, kartelak ipini eta abisua emango zaio berehala Udalari, beharrezkoak diren neurriak har ditzan; halaber, noiz egongo den konponduta jakinaraziko da.

6. REPARACIONES DE URGENCIA

Se atenderá en el plazo de 24 horas cualquier aviso de urgencia. Las reparaciones urgentes se dividirán asimismo en peligrosas y no peligrosas. En el primer caso se procederá a realizar la reparación del juego, previa autorización del Ayuntamiento.

En el caso de que no sea posible, se procederá a acordonar y aislar la zona mediante carteles y se dará inmediato aviso al Ayuntamiento al efecto de que tome por su parte las medidas oportunas, a la vez se informará del plazo de la reparación definitiva.

7.KONTRATUAREN KOORDINATZAILEA

Pertsona bat izendatuko da mantentze-zerbitzuaren arduradun, uneoro zerbitzuaren beharretarako prest egongo dena telefono mugikor bat edo posta elektronikoa duela.

7. COORDINADOR DEL CONTRATO

Se designará una persona como responsable del servicio de mantenimiento, estando en todo momento a disposición de dicho servicio en un teléfono móvil y correo electrónico.

8. SEGURTASUNA LANEAN

Enpresa adjudikaziodunak, zerbitzua hasi aurretik, Udalari lan-arriskuen prebentzio-plan bat aurkeztu beharko dio, baldintza-orri honetan egin beharreko lan guztiak jasoko dituena.

8. SEGURIDAD EN LOS TRABAJOS

La adjudicataria deberá presentar ante el Ayuntamiento y de forma previa al comienzo del servicio un plan de prevención de riesgos laborales que abarque la totalidad de los trabajos a realizar incluidos en el presente pliego.

9. ERREFERENTZIAKO ARAUDIAK

Zerbitzua emateko erreferentziazko arauak UNE-EN 1177 eta 1176 Arauak izango dira.

9. NORMATIVAS DE REFERENCIA

Las normas de referencia de la prestación del servicio serán las Normas UNE-EN 1177 Y 1176

10. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

10.1. HIZKUNTZA-PAISAIA

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.
Ezinezkoa denean, ele bietan egingo dira euskarari kokapen nabarmena emanez.

10.2. ERABILERA EIBARKO UDALAREKIN

Enpresak Udaleko arduradun teknikoarekin izango dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira, ahal den guztietan.

Enpresak aurkeztu beharreko txostenak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

10. CRITERIOS LINGÜISTICOS

10.1. PAISAJE LINGÜISTICO

Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles.
Cuando eso no sea posible, se harán de forma bilingüe, dando al euskera una ubicación significativa.

10.2. USO CON EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Las relaciones orales y escritas de la empresa con la persona responsable técnica del Ayuntamiento serán en euskera siempre que sea posible.

Los informes a presentar por la empresa se realizarán en euskera y castellano.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b838bdfd20c2d1a58f18c66013471744c6145f86**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500006089**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
XABIER URTEAGA URBINA	**03/12/2025 12:35:20**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

10.3. HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN JARRAIPENA

Eibarko Udalak enpresa adjudikaziodunak eskainitako zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratuaren egikaritze-fase osoan zehar, indarraldiko legeria bete eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko

Zerbitzua eman bitartean, Udalak uste badu ez direla bete baldintza teknikoen agirian ezarritako hizkuntza-betebeharrak, egindako arau-hausteen ondoriozko prozedura abiaraziko du (kontratua amaitzea edo zigorrak ezartzea, dagokionaren arabera).

Xabier Urteaga Urbina
Zerbitzu Arloko Teknikaria

10.3. SEGUIMIENTO DE LOS CRITERIOS LINGÜISTICOS

El Ayuntamiento de Eibar realizará un seguimiento del servicio ofrecido por la empresa adjudicataria durante toda la fase de ejecución del contrato, con el fin de cumplir la legislación vigente y garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía

Si durante la prestación del servicio el Ayuntamiento considera que no se han cumplido las obligaciones lingüísticas establecidas en el pliego de condiciones técnicas, iniciará el procedimiento por infracciones cometidas (finalización del contrato o imposición de sanciones, según proceda).

Xabier Urteaga Urbina
Técnico del Área de Servicios

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b838bdfd20c2d1a58f18c66013471744c6145f86**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500006089**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
XABIER URTEAGA URBINA	**03/12/2025 12:35:20**